

Deabruak harriak **ogi** bihurtu
zituen.

Ogiak, denborarekin, **harri** bihurtzen dira.



Apaindurak itsusia **eder**
bihurtzen du.

Mutiko ederrak **agure** itsusi bihur daitezke.

Bihurtu aditzak **mugagabe**an eskatzen du **predikatu osagarria**. (Orobat *bilakatu* aditzak).

- Tronbina da fibronogea **fibrina** bihurtzen duen substantzia.
- Loten emaztea **gatz** bihurtu zen.
- **Inguma** bihurturik irteten dira harrak kapulutik.
- **Hauts** bihurtuko gara eta kea bezala suntsituko.
- Egun batetik bestera **mamu** bihurtuta ikusi zuen bere burua.



Zerbait/Norbait HALAKO bihurtu

HALAKO = ZER: ogi, gatz, inguma, fibrina

HALAKO = NOLAKO: eder, agure itsusi

*Zerbait/norbait HALAKO(T)AN bihurtu

- *Deabruak harriak **ogian** bihurtu zituen.
- *Deabruak harriak **ogi(e)tan** bihurtu zituen.
- *Apaindurak itsusia **ederrean** bihurtzen du.



*zerbait/norbait HALAKOA bihurtu

*Deabruak harriak **ogia(k)** bihurtu zituen.

*Apaindurak itsusia **ederra** bihurtzen du.



Universidad
del País Vasco



Euskal Herriko
Unibertsitatea

Zerbait/norbait HURAXE bihurtu

HURAXE = erreferente bakarra
edo guztiz nagusia

- Olinpiar Jokoetako gure ordezkariag bihurtu da urlia.
- Garai hartakoen *sex-symbola*a bihurtu zen sandia.



Arauak, ordea, baditu zenbait muga, **izen** edo **adjektibo soilak** bestelako osagai eta egiturak hartzean: superlatiboa, partizipioa, izenlagunak, konparatiboak, eta abar.

Horiek, beste fitxa batean jorratuko ditugu.

Ikus Euskaltzaindia: 40. araua
TOPIKO(A) BIHURTU